

## OR ZEGOK KOSKA

"Eskolak ondatu du mundua" esan ohi zen gure artean ia oraintsu arte. "Eskolarik ez duena galdu da" eihukatzen dugu gaur, goitik eta behetik, gainetik eta azpitik, eskuinetik eta ezkerretik.

Bestela kalegarbitzaitzen edo meatze lanetan edo nekazaritzan edo ikazkintzan edo jardun beharko du eskolarik ez duenak. Hala uste du jendeak. Zerbaite dakian jendea lan crasoxeagotan ikusi ohi bait du. Ikasi ere ikasi hortarako egiten da ain zuzen, diru gehixegoz eta dotorexegoz ibiltzeko, alegia.

Baina denak ezin goenean eta eroso izan. Kastatik kondea noski eta betikoak eta betikoen seme-alabak daude aukeraturik lan finetarako, alferkeriarako agian. Betikoak eta betikoen seme-alabak daude izendaturik munduaren azkenetara esku-lan neketu eta igungarriak egitera.

Bereak eta bi ikusi beharko ditu beheko mailatik goiko mailara igo nahi duenak. Oso argia beharko du izan. Nke aundiak jasan beharko dituzte horren gurasoek, beren umea goiko mailara igo dadin. Gutxi izango duete langa hoiek izarotzeko iraupena. Eta beheko mailatik goiko mailara daraman bide ondo ataka gaitinduz duenak ihes egin du betirako beheko mailatik. Goiko mailan txertatu eta itsatsi beharko du eta maila horren zerbitzuan jardun, jatorrikoen galeran.

Irakaskintza, goikoez goenean eta behekoek barrenean jarrai dezaten eratu ohi da. Gorako eta behegaro dira eskalera, baina lehendik, aspalididantik, eskaliburuan daudenek erabakitzen dute zeini gora igotzen utzi. Goiko inori ez zailo behera abiatzerik buruzten. Behekoak, berriz, eta ezin kontu-ahala dira, gora igotzeko irrikaz daude, baina alferrik. Ezinkeza da ia gehien-gehientzat.

Gizarteko maila, desberdintasun eta zapalketei eusteko neurrian ezarria dago irakaskintza, besteak beste, bai gaiaz eta bai eraz ere.

Bestalde langileak, larre-motxeko langileak alegia, egindako kulturarik ez dugu ezagutzen. Larre-motxeko langileak ez dute hontaz pentsatzeko eta jabetzeko betarik.

Zer egin? Utsetik asi? Larre-motxeko jendearen eta jendearentzat kultura sortzeki? Baina nor sortu? Larre-motxekoak? Bai al dezake? Behekoarekin lotu nahi duen goikoak? Asmatuko al du? Ala langileriarik ez dagoenez gero, dagoena behekoetara zabaltu eta luzatu? Sortu al ditek, perretxikuen antzera, kulturarik kulturagabeen arteki?

Gizona da irakaskintzaren elburu. Hala izan behar luke. Gizona osatu. Gizonagotu. Nor egin. Hortarako gizarteko mailak eta koskak berditzeari ekin behar diogu. Bestela irakaskintzak ere hortan sustarria jarraituko du.

Baina gizartea aldatu zai ezin egon, irakaskintzan ez eraz egiteke. Gogoan izan behar du irakaskintza gizartearen eta egoera. Ez ditekela gizarteko desberdintasunen eskarri izan jabetu behar du. Luzerako lana da, baina hoiek aldatzeko kementa eta argia hor jaso behar da.

# IKASTOLETAKO ULTRAK

"Ikastola-giroa lardazkatzen ari da"... "Horrela segitzekotan, bi urte barru ez da ikastola araristik geldituko"... "Ikastolarenak egin dik"... "Ikastola eraso beharrik ez dago: berez suntsituko dira dau-denak"...

Horra hor gero eta maizago entzuten ditugunak. Gaitz hauxe aztertzen zuten berriki Aurtiz-ek orrialde hauetan; eta, bidenabar esateko, zorianik gartsuenak niketz, Aurtiz adiskide!

Ikastola kinka gaiztoan sartu da.

Eta ene galdera hau da: "Cui prodest"? Noren fagoretan sartu? Saltsa honetan zer kaltetzen da? Zeri laguntzen? Nor ari da izkuntza farrez? Nor malkorik gabeko negarretan? Zoazok ez bagina, galdera hauetxen bidez igarriko genuke berehala nor zer den, istiluardeen kaka zeratan datzen, eta hari gorden mugitzaileak nortzuk diren. Ez bide dugu egingo, ordea, zoazok gaila behin eta berriz eta mila bider frogatua baitugu; eta ikastolaren arazo argitsu honetan, berriz ere, gure arteko kirtenek eta haien arteko azariek, eskuz esku, ikastolaren aurka elkar hartuko dute.

Mutur bateko eta beste "ul-trek" (hemen, ezinbestean, horrela bataiatuko ditut beste izen aproposagorik mereriz dutenak) ikastolak nola sortu ziren eta nola eusten diren ahaztu bide dute.

Legearen aldetik nekez atxikitzen dira, bai Hegaldean bai Iparraldean, ez baituzte etsiak eskas, alajainko! Andereñoak lortzea eta

hezte txit da zaila: gero eta euskaldun gutxiago dago, hizkuntzari dagokionez, jatorrizko euskaldunen artean; geroko kezka beti ageri zaie andereñoel zema gisa: edozein larrinetan gerta baitaitezke ebakirik eta debekaturik hemengo eta hango ikastolak. Goitikako laguntzarik ezaz, liburu eta tresneria egokirik gabe eraman behar dira eskolan, eta leku bera aurkitzeko lanak izaten dira maiz. Hizkuntza baturik ez dago oraindik, zeharo osaturik eta euskaldunek ezaguturik batez ere, nahiz batasuna edeki abiatua izan; eta andereñoek (eta idazleok!) makina bat oztopo topatzen dute euskaraz nola hitzegiñ zehatz ezin jakinik. Haurrak, bestalde, erdaraz ari dira etxerik gehienetan, eta erdal giroa etengabe edaten dute, andereñoen zuzendu-beharrak nekagarriago eginez: "nor ekarri du", "ez: nor ekarri du", "esan nau, ez: esan dit", "ifioreri, ez: ifiori", "nola etorri dan, ez: etorri denez gero"...

Beti ere laguntza ofizialaren faltaz, ikastolak behar duen dirua ahal bezala eta arunt nekez bilatu behar da, euskal probintziatit gerga gisa aiki sosis itergo ez balitz bezala. Gero horretan, eta ez Arkadian, oratu da ikastola.

Ikastola, beraz, OSO NEKEZ BIZI DA. Ikastolen multzoak oso giza-zarritailu ahula osatzen du, ezin ahalago beharbadu; eta herri euskaltzalearen nahi zindoa gabe, pikutara joana zitzaiken aspaldi honetan.

Euskal Herrian, bestalde, ez da INOIZ ino ikastalarik; xehetasun "txiki" hau ahaztuzten edo iturztzen bide zaie "ultra" delakoel... Oroimen laburra... omen!

Ikastolen multzoak, beraz, ohe-tik jaiki berria den eri handia gogoratzen dit, eta ez inolaz ere Munich-eko atleta indartsua; sosis gabe bizi den txiro baldresia, eta ez inolaz ere jauntxo aberats harroa; baler-izpi segaila, eta ez haritzondo sendoa. Ustekabeko idoretz ihartuko ote den bildurrez bizi gara euskaltzaleok.

Hots, "ul-trek" ditenez, ikastolen sail ezin ahulago eta minberago horri gaurtxe erantsi behar zaizkio ausardia, aurrerapen eta nobisismo guztiak. Jaiki berria den erriari, argibideari eusteko, marathon, paralelak, treineru-estropada lartzak eta boseoa eginarazi nahi zaizkio (azkartu nahiz, jakina); eta Urtarrileko aldaia famatua doi-doi gaitinduz duen gizarajoiari, Casino-an jokarazi nahi zait jaialtaste Otsaila guztian barrena!

Zozokezrian (ala zukurkerian??) tietan aurrera abiarazi nahi da ikastola: batzuek Pekin-goak baino marxista-leninistago nahi litzukete, murgilduta, estremismo mota guz-besteek Vaticano-koak baino aisa elizkoioago; Urliak naturismo hutsetik abiatutik, Berendiak klarisak baino hertsiaago eta lottorsoago; hauek Althusser, Mao, Freire eta Bernadette Devlin-en araberakoak, haiek Ottaviani, Strossner eta Makarezos-en plegukoak.

Jakina denez, eta gaur batez ere, ideologi-arazo horiek pratikan eta burrunkan jartzeko leku ez da euskal ikastola, erdal eskola baino; ez da gurasoen biltzarra, Madrilleko ministroena baizik. Pedagogia eta iraultza lotuta dagozela errepikatut ohi zaigu, eta egia da: baina iraultza ez da Budapest eta Pragatik pasatzen, eta iraultza eta probokazioa lotuta egon daitezke (eta egonak dira!).

Ikastola zer den eta zertan dagoen ahaztuztea txotxolokeria galanta litzake, edo askoz larriago den zerbaite. Ikastoletan mendeetan barrena lehenengo alditz eskolatzen dira haurrak gure hizkuntzaz. Hau xehetasun ttipizat daukanak, xehetasun ttipizat dauka inperialis-

moa; eta "USA go home" oihu egiten duenean ere, inperialista gogorra dela badakigu.

Jakina: oso urte zailak eta itsusiak pasatzen ari gara, gaisorik egon denak bizkortzerakoan aste atsekabeak pasa behar izaten dituen bezala. Kanpotik ikusirik, tematurik gaudela ematen du: "euskeromano" deitu gaituzte arrotek. Eta gisa da: jaten ez duenak, janaritan tematurik dagoela ematen du; lehenengo emakume osoki maitatu ez duenak, sexo-tema berberaren kutsua uzten du bere inguruan; eta industri-zoko itsusietan bizi diren langileak, diru-tema kiratsa hedatzen omen dute huzo dotore burgesetan. Tema-itxuririk eza aberatsen ezagugarria da: "handid handiro", dio gure atsoitzak. Txikiak, herri... beti gozakit eta tematuta!

Varsovia-ko "ghetto"an hitler-tarren kontrako "tema" nabarmenak omen zuden, Grezia-ko uharteetako garteletan oso "tema" itsusiak itxura denez, erietigietako minbizien artean "tema" asko ere bai; eta Viet Nam-go arrozdiatan tema bakar bat aspaldi honetan: "yankitarrak etxera!... Itsusia, betean, negargarria.

Askoz dotoreago da Paris-ko "XVI"eme Arroditsimentu-eko "ezkerrek" (?) esportatzen duen "iraultza" (?) hiper-gorria (?) zabalteza. Batez ere ukatuen ikastoletan zabalteketan! "Les pauvres petits negres"...

Eta horretan gaude: misiolariak etorri dira; eta kaktusak eta palmondoak lantzeko teknika super-berri eta super-berriazaleak azaltzen hasi. Eta entzuten dituzten Groenlandia-ko eskimotar "ondrauek" egia ditela pentsatu dute; eta fiordotan erabiltzeko zorian omen daude... Bapo!

Konponbidea, ordea, erraza luke-te gure ultra kuttunek: aski lukete beren burua Pragan eta Vaticano eskaintzea. Eta "sobrante-rik bala-go, joatea leukate horiek Pekina. Behera errebisionismoak oro! Gogor!

Eta denak pozik horrela: berak heretikoak erretzeko hirrikan; ikastolekta haurrak liburu; eta gu... zer esanik ez! Txistua eta danbolina lagunduko genieke malato-arboletoak mugaraino, baita Baztan-go hiletari batzuk ere dituko... Euskal Herria "ultra-rik gabe! Ba-kearen ederra!

LARRESORO

# Oteiza eta Mitxelena

Bizi den gizarteak bizidun izakiak sortzen ditu. Baina bizia ez ditekela apal batzutan gorde, izatez ederra bait da.

Era asko daude bizia galarazteko. Bizitari sortzen ez utzea da aurren aurrena bati gogoratzen zai-ona. Baina hilik dagoenaren mol-detan sarrarazi nahi denean ere heriotza opa zailo.

Reguim giatteari. Baina gure gizarteak: guk osatzen dugunari. Ez du edonork "Bienal de Sao Paulo"ko lehen-saria irabazten. Poz-tu egin behar luke bizi den herri-ri bere alditzotik "Bienal" bateko irabazlea sortu delako. Gureak ez du pozik. Horregatik pentsatzen dut hila ez badago ere, asko dfrala hil nahi dutenak.

Bere arrazoiak izango ditu, noski, Jorje Oteizak zoratzeraino mait-e duen Euskal Herriatik kanpora abiatzeko. Ez diot ezer esaten. Er-besteratu beharraren mina jasaten dut berarekin batera.

Zerbaite berria sortzeko gauza den gizonari hortarako behar duen giroa gertutzeko gai ez den herri-koa izateak mintzen nau. Donostia, Ondarabi, Zarautz, Deba. Guk ez dugu hortarako gauza zenak, sor zezan, giro egokirik jartzen jakin.

Guri esanak dirudite orain dela hogeiata best mende Heraklitok shoskatutako hitzak: "Hobe Efisio-ko gizon helduek beren buruak urkatuko balituzte eta mutiko bizargabeel uria utzi, gizonik onena, Hermodoro, bidali bait dute zera esanaz: Inor ez da izango gure artean onen denik; honelakorik ba-da beste nonean eta beste batzu-ren artean gerta dedila".

Ihes egin behar izan dute gure arteko onenek ere. Bakoitza bere barruko arazoiz joan beharra izan duela uste lezake norbaitek. Oker dago Mitxelena "Triunfo" aldizkari-aren ale berzian diona irakur-tzen badu: "Euskal Herriko kaiola-txoan ez dagoela lekuri, zenbait gizon oso azkarrentzat, esan ohi da behin baino gehiagotan: horre-gatxe ihes egin zuen, esate ba-terako, Unamunok. Baina bai Unamunok eta bai gizarajo honek le-henik eta batez ere bizibeharren eraginez joan behar izan zuten: Nor bere burua eta etxekoak man-tenzeko eta gogozko eta gertutu-tako lanean jarduteko, ez nork be-re herrian aurki zezakenean".

Haundia esan du, baina hala da. Gogora ditzagun lan egiteko giro egokiaren bila atzerrira joan diren musikoak.

Baina egia ote, Euskal Herrian ez dagoela zenbait aparteko gizon azkarrentzat lekuri?

Gertatzen denak nabarmenaraz-ten du garbi.

Ez nuke egoera honen epaile izan nahi. Min ematen badit ere badut erantzunikizun. Hau esaten uzten didan aldizkariak duen beza-laxe.

Denok dugu zerikusi eta eran-tzunkizun. Asko dezaketena, azkar apartak diren hoientzat erakunde egokirik sortzen ez dutelako. Ezer gutxi dezaketena, ezer ez daki-ten edo jakin nahi ezaren aitzakiz beren buruak zurtzen dituztelako. Badira, ordea, eskuak garbi dituz-tela uste dutenak ere, baina agian berauk dituzte zikinak. Ez dira asko dezaketena haundi hoietakoak,

ez eta ajolakabeoetakoak ere. Ho-nelako gizonak gaitzez min har-tzen dute, baina, onean, berauk dute errurik haundiena.

Ederresteko joera dugu denok gaueza bat ezin lortu dugunean. Ametszoko mundu zoroan asetzen dugula iruditzen zaigu barruko es-keak egiaz ezin ase dugunean.

Honela grinak eskatzen duena gertatzeko geratzen da. Gaindira-zi nahi duen indarra ere geurega-natu gabe gelditzen gara. Barruko eskea bete gabe gelditzeko bide-rik egokiena, gainera, amets-mun-dura jasotzea da.

Gizarteak ere baditu betebe-harrezko eskakizunak. Beldur ematen du eskatzen duena egiteak. Or-duan erdi-bidera jotzen dugu: be-harra bera ikustea ere galerazi eg-itzen dugu. Beharrik ditekienek ere ez du uste. "Okerrik txikiaren" izenean asmatzen ditugun ditek-ken, badaezpako bideetara jotzen dugu. Kafearon ordeaz malte es-keintzen dugu. Ez premarik ase-zen du eta ez premarik sorra-razten.

Gutxiarik beharra somatuko ba-litz ere hutsa litzake. Orduan orroa-ka dagoen gose haserrea eske egongo litzake. Inglesek hauxe dio-te: "zuzentzeko bezain garratz eta gaizki jarri behar dira gauzak".

BASARTE



Burlada - Iruñea

ASTEKARI HONEN JABEA: Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoen Probintzia.

ZUZENDARIA: Miren Jone Azurza Aristeguieta. Kaieta-NO Ezeiza Iturriza eta Jose Luis Orella Lazkano.

DIRU GORA-BEHERAK 1972-an:

JASOTAKOAK: 3.263.675

ORDAINDUTAKOAK: 3.245.423

IRABAZIAK: 18.252

Astekari honek ez du azionistarik; bere ekonomia-er iturburu, arpedu.ak, salmentak eta iragarriak ditu.

Iruñea:

"Gráficas Navasas"

A. Adoain, 1

IRUÑEA